



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko agorrilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, agorrilaren lauan, zortzietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENSA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, HEGUY Antton, IRIART Jean Claude.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : DACHAGUER Peio.

Deialdiaren eguna : 2022ko uztailaren 29a

Afitxatze eguna : 2022ko uztailaren 29a

2. ERABAKIA: IZPURA, ORTZAIZE ETA JATSUKO LURRETAN PASATZEN DEN BIDAZPEA BIDEAN LANEN EGITEKO OBRA AGINTARITZA ESKUZ ALDATZEKO HITZARMENAREN IZENPETZEA.

(8.3 nomenklatura: Bideak)

Auzapezak oroitarazi du herriak, IZPURA, JATSU eta ORTZAIZetik igarotzen den Bidazpea errepidean obrak egiteko proiektua baduela.

Bertze bi herrietako auzapezekin solastatu-eta, adostu dute obra agintaritzaren eskuz aldatzea egitea, Frantziako Deialdi Publikoen Kodeko L.2422-12 artikulua araberan, hori izanen delakoan muntaia juridiko egokiena.

Horretarako, hitzarmen proiektu bat egin dute, Auzapezak mahai gainean utzi eta laburki aurkeztu duena:

IZPURA herria izendatuko litzateke obra agintari bakar, eta urririk beteko luke eginkizun hori;

Gastuen banaketa obra agintari bakoitzari dagokion zenbatekoaren arabera egingen da;

Hiru obra agintariak elkartuko dira proiektuaren urrats nagusietan (programaren zehaztea, lanen bukaera) ;

Gainera, informazio puntual eta erregularrak egingen dira.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren aurkezpena entzun eta eztabaidaturik,

BAIMENA EMAN DIO: Auzapezari aurkeztu den obra agintaritza eskuz aldatzeko hitzarmenaren izenpetzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 12

Balitzko boz kopurua : 12

ALDE : 12
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko agorrilaren 4an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/08/10an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/08/10an.